

EROSKI-K FRANKIZIA ERAKO SUPERMERKATU BAT IREKI DU IRUÑEAN

- Frankizia erako denda berriak elikagai zerbitzu osoa emango die kontsumitzaileei fabrikatzaileen markekin, marka propioarekin eta freskoetan lidergoa dutenekin
- Saltokian sei langile ari dira
- EROSKI 30 frankizia inauguratu ditu 2020an, eta horretarako 2,9 milioi euro inbertitu ditu; hala, 156 lanpostu sorrarazi ditu
- Kooperatibak eusten dio CEAJErekin duen lankidetzaz hitzarmenari, eta beste hitzarmen bat egin du ATArekin, enpresaburu gazteen ekintzailatza lagundu eta sustatzeko

Iruñea, 2020ko abenduaren 17a.- [EROSKI](#)k frankizia erako beste supermerkatu bat inauguratu du Iruñeko Zitadela kaleko 5.ean. EROSKI/City izenekoa da saltokia, eta, tratu pertsonalizatuagoa eman ez ezik, apustu egingo du tokiko produktuen eta sasoiko elikagai freskoen alde; horrez gainera, elikadura osasungarria sustatuko du, eta eguneroko erosketetan aurrezteko modu berriak eskainiko ditu. Saltokiak sei langile izango ditu

Supermerkatuak 3.000 produktu baino gehiago eskainiko ditu, ekoizle liderren markakoak, marka propioak eta tokiko ekoizleak, eta 200 metro koadro ditu. Horretaz gainera, elikagai freskoen eskaintza zabala edukiko du; bereziki, sasoiaren sasoiko tokiko frutena eta barazkia, eta erreferentzia osasungarriek garrantzia hartuko dute, produktu ekologikoen sorta zabalagoa izango baita. Saltokiak, era berean, ogiak eta opilak izango ditu, labe propioan egin berriak, bezeroei freskotasunik handiena bermatzeko.

Hilero-hilero, eskaintzak eta sustapen kanpainak izango dira, kontsumitzaileei aurretik laguntzeko. Aurrezpen horretan, EROSKI Cluba da erakusgarri behinena. Bezero-bazkideak markarekin fidelizatzeko programa da, eta oso sustapen erakargarriak ditu, baita Travel Club txartelak lehendik zituen abantaila guztiak ere. 209.000 kontsumitzaile baino gehiago dira kooperatibako Bezero bazkideak Nafarroan, eta EROSKI Cluben abantailak ikusten ari dira dagoeneko.

30 frankizia inauguratu ditu 2020ko lehen sei hilekoan

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

EROSKIk 30 frankizia inauguratu ditu 2020ko lehen sei hiletan. Guztira, 2,9 milioi euro inbertitu ditu, eta 156 lanpostu sorrarazi. EROSKIk aurreko urteetako irekieren erritmoari eusten dio; hala, sei urte honetan, 300 inaugurazio baino gehiago egin ditu, eta gaur egun, frankizia erako 500 supermerkatu baino gehiago ditu. Hala, jarraitzen du frankizien sarea hedatzen, fokua lurralde hauetan ipinia duelarik datozen urteetarako: Andaluzia, Madril, Gaztela-Mantxa, Extremadura eta Levante. 2020ko ekitaldian, kooperatibaren asmoa da 60 bat frankizia inauguratzea.

EROSKIren frankizien supermerkatu sarean, %30 inguru igo dira salmentak urteko lehen sei hiletan. Horrek esan nahi du aurten oraingoz %16 handitu dela merkatuaren gainetik, Nielsen datuen neurketaz eta analisisaz arduratzen den konpainiaren txostenak dakarrenez. *"Merkatutik bestelako frankizia eredu bat eskaintzen dugu; izan ere, geure izaera kooperatiboak (geure bazkide langileekin) ekintzaileen premietatik hurbil kokatzen gaitu. Eredu komertzial erakargarri bati esker lortu dugu haztea; izan ere, COVID-19ak eragin duen osasun krisian sektoreko batez bestekoak baino hobeto bete ditugu kontsumitzaileen beharrak"*, nabarmendu du EROSKIren Frankizia arloko zuzendariak, Enrique Martinezek.

Lankidetzak hitzarmenak

Kooperatibak eusten die Enpresaburu Gazteen Elkarteen Espainiako Konfederazioarekin (CEAJE) dituen lankidetzak hitzarmenei, enpresari gazteen ekintzailetza lagundu eta sustatzeko, eta akordio bat du ATArekin, hau da, Enpresarien eta Langile Autonomoen Elkarteen Espainiako Federazioarekin. Hitzarmen horiekin, ekintzailea indartzeko konpromisoa hartu ez ezik, EROSKIk autonomia erkidegoetako ekonomia garatzen lagundu nahi du.

Merkataritza Frankiziarik Onenaren Saria

Orain berriki, EROSKIrena iruditua zaie kontsumitzaileei proposamenik onena *Frankizien* kategorian, [2020-2021eko Merkataritza Sariaren hamargarren ekitaldian](#); Espainiako kontsumitzaileen sariketarik handiena da, eta *retail*-aren sektorean egiten den merkatu azterketarik handienetako bat.